

Laugarrenean, agidanez



Hamlet

Jatorrizko izenburua: *Hamlet, , Prince of Denmark*

Egilea: William Shakespeare

Itzultzailea: Juan Garzia

Argitaratze urtea: 2012

Argitaletxea: Elkar (Urrezko Biblioteka)

INMA ERREA

Maiz entzun ohi dira kexak, euskaraz ez ditugun edukien faltaz. Kasu gutxi batzuetan, ordea, ezin gara kexatu, beste hizkuntzetan beste, edo gehiago, baitugu. Hori da Shakespearearen obren kasua (Susa argitaletxearen *Shakespeare gurean* izeneko web orrian eta Armiarma webgunearen *Euskarari ekarriak* izeneko atalean ikus daitekeen moduan), eta zehazkiago, iruzkin honen xede den *Hamlet* tragediarena.

Hamlet 1952an agertu zen euskaraz lehen aldiz, Bingen Ametzagak euskaratu eta Ekin etxeak argitara emanda Buenos Airesen. Bere aldetik, Bedita Larrakoetxeak, Shakespearearen lan guztiak euskaratzeari lotu zitzaion apaiz eta idazleak, *Hamlet*en beste bertsio bat eman zuen argitara 1976an, *Odol Antzerkiak-A* izeneko liburukian.

2002an, euskara normalizatuan egindako *Hamlet*en lehen bertsioa irakurri ahal izan genuen, Juan Garziak euskaratu eta Ibaizabal argitaletxeak argitaratuta, Literatura Unibertsaleko bilduman.

Egin berri den bertsioa, 2012koa, 2002ko itzulpenaren bertsio hobetua eta eguneratua da, eta Urrezko Biblioteka bilduman eman da argitara. Bilduma hori EIZIEk abiarazi du, Literatura Unibertsalaren bilduman 1990etik hona euskaraz argitaratutako literatur lanetatik lehenengo 100 izenburuak paperean eskuraezin direla ikusita. Guztira, 20 lan hautatu dira berriro argitaratzeko.

Hamlet obrari buruz, ezer gutxi dago esateke, ez bada beti atera daitekeela, harrigarria bada ere, hari-punta berriren bat haren matazatik, eta horri esker lortu duela, hain segur, klasiko bat izateko meritua. Horri dagokionez, gomendatzeko modukoa da Juan Garziak edizioaren hitzaurrean adierazitakoak irakurtzea obraren beraren irakurketari ekin aurretik.

Hitzaurrean bertan, Juan Garziak azalpenak ematen ditu *Hamlet* itzultzeko orduan kontuan hartutako irizpideei eta egindako aukerei buruz, eta halakoak jakitea ere interesgarria da beti. Itzultzaileak berak adierazitakoaz gain, esan beharra dago oraingo bertsio honetan hizkuntz maila eta esparru batean baino gehiagotan egin dituela itzultzaileak hobekuntzak: batetik, lexikoa eguneratu du, euskararen bilakaerari eta Hiztegi Batuaren eskakizunei erantzunez; bestetik, joskeran eta puntuazioan ere egin ditu zenbait aldaketa, ulergarritasunaren eta zehaztasunaren mesedetan; azkenik, aurrekoak lagun, adierazkortasuna areagotu du zenbait pasartetan, eta beldurrik gabe jokatu du horretan, hitzak eta esamoldeak kenduz, moldatuz edota erantsiz, beharrezkoa jo izan duen guztietan.

Emaitza itzulpen konplexu eta oparoa zenaren bertsio hobetua dugu, betiere klasiko honi dagokion legez irakurleei ahalegintxo bat eskatzen diena: irakurleek eguneroko euskara estandarrean ohikoak ez diren egitura

sintaktiko, hitz eta esamoldeak aurkituko dituzte, bai eta gutxitan ikusten diren aditz trinkoak ere. Baina ezein irakurle ez dadila izutu, testuingurua izanen baitu beti makulu. Eta antzerkia denez, jostatzeko beta ere ematen digu *Hamlet* honek: proba ezazue zenbait pasarte ozenki deklamatzera, eta miretsita ikusiko duzue hitzak nola eraldatzen diren, edertzen eta handitzen, ozenki esaten direnean. Antzerkia baita hau, eta antzerkiaren funtsa, finean, antzeztua izatea da.

Inma Errea

2013ko otsailaren 14a